


El gobierno español ha convocado un referéndum para el 20 de febrero del año 2005. Quiere que nos pronunciemos sobre el Tratado Constitucional Europeo que, según una encuesta del CIS, desconoce el 84% de la población. Tampoco se han dado garantías suficientes para un debate público y plural a la altura de lo que se pretende aprobar.

En las últimas décadas, la tradición política europea ha sido, relativamente activa tanto en la defensa de unos mecanismos de acción internacional basados en la adhesión y respeto a tratados internacionales de signo positivo, en las circunstancias del mundo real en que vivimos (ONU, DD.HH., Tribunal Penal Internacional, medioambientales-Protocolo de Kyoto, etc), como en la apuesta por la Cooperación Internacional, o en la protección social y los derechos ciudadanos. Es por este camino por el que creemos que había que avanzar pero, desgraciadamente, el proyecto de Tratado Constitucional que nos someten a referéndum es absolutamente insuficiente en este sentido.

A pesar de que en el Tratado se recogen valores y derechos civiles importantes, no hay avances sustanciales y no se concreta su aplicación practica, ya que se contemplan mejor y tienen más garantías en las Constituciones de los Estados miembros de la Unión y no concreta su aplicación práctica. Sin embargo, en el parte III, dedicada a las políticas económicas de la Unión, eleva a rango de principio constitucional los elementos definitorios de las políticas económicas neoliberales más crudas, como son: el mercado y la libre competencia como único regulador de la economía, la libre circulación de capitales, la restricción del déficit público y por lo tanto la capacidad de gasto social, la escasez de recursos económicos propios, o el escaso control político sobre el Banco Central Europeo.




Espainiar gobernuak 2005eko otsailaren 20rako erreferenduma deitu du. Herritarrok Europako Konstituzio Tratatuaren inguruan dugun iritzia eman dezagun nahi du, CISek egindako inkesta baten arabera, baina, herritarron %84k ez du Tratatua ezagutzen. Onartu nahi denak duen garrantziaren mailako eztabaida publiko eta anitzerako nahikoa bermerik ere ez da eman.

Azken hamarkadetan, europar tradizio politikoa nahiko aktiboa izan da: bai bizi dugun mundu erreal honen (NBE, Giza Eskubideak, Nazioarteko Zigor Auzitegia, ingurugiroan Kyotoko Protokoloa, e.a.) nazioarteko tratatu positiboekiko atxikimenduan eta errespetuan oinarritutako nazioarteko ekintza-mekanismoen defentsan, bai Nazioarteko Kooperazioaren aldeko apustuan, bai gizarte babesean eta herritarren eskubideetan. Bide horretan sakondu beharko litzatekeela uste dugu, erreferendumean erabaki beharreko Konstituzio Tratatuak baina, zoritxarrez, hutsune nabarmenak ditu zentzu horretan.

Tratatuak eskubide eta balio zibil garrantzitsuak jasotzen dituen arren, ez dago aipatzeko moduko aurrerapausorik eta ez da horien aplikazio praktikoaz ezer zehatzik adierazten, izan ere, eskubide eta balio zibil hauek hobe jasota daude eta berme gehiago dituzte Batasuneko kide diren Estatuen Konstituzioetan. Aitzitik, III. atalean, Batasuneko politika ekonomikoei buruzkoan, printzipio konstituzionalen mailan jartzen dira politika ekonomiko neoliberal gordinenen ezaugarri diren elementuak: merkatua eta lehia librea ekonomiaren erregulatzaile bakar gisa, kapitalen zirkulazio librea, defizit publikoaren murrizketa eta ondorioz, gizarte gasturako gaitasunarena, berezko baliabide ekonomikoen eskasia edota Europako Banku Zentralaren gaineko kontrol politiko urria.

Los grandes objetivos de la Europa social (derecho al trabajo, el pleno empleo, eliminación de la precariedad, renta mínima garantizada) figuran débilmente en el Tratado Constitucional. La aplicación de los aspectos concretos de protección social queda en buena medida en manos de los estados miembros, mientras que la política social de la Unión Europea se formula como subordinada por un lado a la "diversidad de las prácticas nacionales" y, por otro, a la "necesidad de mantener la competitividad de la economía de la Unión".

El acceso a los derechos de ciudadanía es otra de las carencias importantes . Esta se limita a los ciudadanos de la Unión, lo que excluye a millones de personas inmigrantes, incluidos los residentes estables de larga duración. Basándonos en el principio de que todas las personas somos iguales y tenemos los mismos deberes y derechos, se les deben otorgar los mismos derechos políticos y sociales que a cualquier ciudadano de la Unión.

Uno de los aspectos más negativos es el referido a la política exterior y de defensa europea. Pese a la voluntad de someterla a un criterio de "prevención de conflictos con arreglo a los principios de la Carta de Naciones Unidas", se apuesta por crear una Agencia Europea de Armamento, Investigación y Capacidades Militares y se establece el compromiso de los Estados de "mejorar progresivamente sus capacidades militares". Además de ello, institucionaliza "el compromiso de respetar las obligaciones que tienen determinados Estados miembros con la OTAN", y no se renuncia a la guerra como principio ante los conflictos, pese a ser esta renuncia un fundamento del nacimiento de la propia UE.

También hay que destacar su déficit democrático. La representación directa de las y los ciudadanos de la Unión, personificada en el Parlamento Europeo, se subordina al poder de los gobiernos estatales representados en el Consejo Europeo. La posibilidad de que prospere una iniciativa legislativa ciudadana, para la cual se necesita recoger un millón de firmas, queda en manos de la Comisión Europea y, lo que es más importante, la toma de decisiones por unanimidad y mayoría cualificada hace que exista una gran dificultad para que el Tratado Constitucional sea reformado en un futuro, por requerir la unanimidad de los estados miembros.

Tampoco hay un reconocimiento de la igualdad entre hombres y mujeres como un principio y valor a respetar y no sólo como un objetivo a promover. No reconoce una serie de derechos básicos como la contracepción y la interrupción voluntaria del embarazo o la libertad de opción sexual, dejando a las legislaciones nacionales su regulación.

No permite una actualización democrática del derecho a la autodeterminación de los pueblos o naciones sin Estado, ni se otorga reconocimiento adecuado a la realidad plurinacional y plurilingüística de Europa.

En resumen, entendemos que este Tratado Constitucional queda muy lejos de nuestra aspiración a una Europa unida por otros valores, socialmente integrada, solidaria con el resto del planeta, que apuesta por la desmilitarización y las fórmulas pacíficas en la resolución de los conflictos, que se toma mucho más en serio la igualdad de derechos entre hombres y mujeres, la sostenibilidad ambiental, la pluralidad cultural y lingüística o la justicia social.

# POR OTRA VÍA PARA EUROPA

# VOTA NO

ZUTIK

Europa sozialaren helburu handiak (lan egiteko eskubidea, enplegu betea, prekarietatearekin amaitzea, gutxieneko errenta bermatzea) oso modu apalean ageri dira Konstituzio Tratatuan. Gizarte babeserako alderdi konkretuen aplikazioa, neurri handi batean, kide diren Estatuen esku geratzen dira. Bien bitartean, Europar Batasuneko gizarte politika "praktika nazional anitzen" eta "Batasuneko ekonomiaren lehiakortasuna mantentzeko beharraren" menpe formulatzen dela dirudi.

Beste hutsune nabarmena hiritar-eskubideen esparruan ikusten dugu. Hauek Batasuneko hiritarrei baino ez zaizkie onartzen, milioika etorkin baztertuz, baita egoitzadun egonkorrak eta luzarokoak ere. Pertsona guztiak berdinak garela eta eskubide eta betebehar berdinak ditugula jasotzen duen printzipioa kontuan hartuz, Batasuneko edozein hiritarrek dituen eskubide politiko eta sozialak beharko lituzkete.

Alderdirik okerrenetarikoa Europako kanpo-politikari eta defentsari dagokiona da. "Nazio Batuen printzipioei jarraiki gatazkak prebenitzeko" irizpidea ezartzeko borondatea adierazten den arren, Armagintza, Ikerketa eta Gaitasun Militarren Europako Agentzia sortzearen aldeko apustua egiten da eta Estatuek "euren gaitasun militarra era mailakatuan hobe dezaten" hartu beharreko konpromisoa ezartzen da. Horrez gain, "kide diren Estatu jakinek NATOrekiko dituzten betebeharrak errespetatzeko konpromisoa" instituzionalizatzen du eta gatazken aurrean ez zaio, printzipio gisa, gerrari uko egiten, Europar Batasunaren sorreraren oinarrietako bat ukazio hori izan arren.

Defizit demokratikoa ere leporatu behar zaio. Europako Parlamentuak gorpuzten duen Batasuneko hiritarren ordezkaritza zuzena, Europako Kontseiluan ordezkatuta dauden Estatuetako gobernuen boterearen menpe uzten da. Europako Batzordearen esku geratzen da, milioi bat firma jasota, legegintzako herri-ekimen batek aurrera edo atzera egingo duen, eta are eta garrantzitsuagoa dena: erabakiak aho batez eta gehiengo kualifikatuaren bidez hartu behar izateak nabarmen zailtzen du etorkizunean Konstituzio Tratatua moldatu ahal izatea, kide diren estatu guztien ahobatezkotasuna beharrezkoa baita.

Gizonezko eta emakumezkoen berdintasuna, sustatu beharreko helburu gisa soilik ez, baizik eta errespetatu beharreko printzipio eta balio gisa ez da jasotzen. Ez ditu oinarrizko zenbait eskubide errespetatzen, hala nola, kontrazepzioa eta haurdunaldia borondatez etetea edota sexu-aukerarako eskubidea, eskubide hauek arautzea legislazio nazionalen esku utziz.

Ez du herrien edota Estaturik gabeko nazioen autodeterminazio-eskubidearen eguneratze demokratikoa posible egiten, eta ez zaio nazio eta hizkuntza anitzeko Europaren errealitateari behar bezalako errekonozimendurik aitortzen.

Finean, Konstituzio Tratatu hau gure nahietatik oso hurren geratzen da. Beste balio batzuetan oinarritutako Europa nahi dugu, sozialki integratua, gainerakoekin solidarioa, desmilitarizazioaren eta gatazkei irtenbidea emateko formula baketsuen alde egingo duena, gizonezko eta emakumezkoen eskubide berdintasuna, ingurugiroaren jasangarritasuna, kultur- eta hizkuntza-aniztasuna eta justizia soziala bezalako gaiak arduratsuago jorratu dituen Europa, hain zuzen ere.

Hau guztia kontuan hartuta, Zutik-ek ez du Europako Konstituzio Tratatu hau onartzen eta otsailaren 20an egingo den erreferendumean EZ bozkatzeko deialdia egiten dizuegu.

# EUROPAREN NORABIDEA ALDATZEKO

# ESAIOZU EZETZ

ZUTIK